



*KA TOPAKETA#4*

*DOKUMENTUA / DOCUMENTO*

*DOKA Antzokia (Donostia), 2015.01.31*

# KA TOPAKETA #4 ESKEMA/LABURPENA (2015.01.31)

## I. LOGO ETA IRUDI KORPORATIBOA ETA TEASERRA

Otsailaren 28a baino lehenago aurkezten ziren 3 logoak Facebooken bozkatzea erabaki zen (data hau KA-ren lehenengo aurkezpena da).

Teaserraz gain, 2014ko Dossier edo Memoria bat egitea proposatzen da, urte osoan kideek egin dituzten ekimenak barneratzen dituena.

## II. BARNE EKIMENA ETA KA-REN AURKEZPENA

Aurkezpena ekimen txiki bat bezala planteatu zen 20:00tatik 22:00/23:00-ak arte gehienez, leku txikiago batean (Altxerri, El Callejón...).

Ekimen honen edukia, Iñaki Arizmendik antolatuko du, musika eta obren proiektzioak fusionatuz, egunerokotasunarekin eta sorpresarekin jolasten duten obrak, kritika soziala barneratzeko.

Aurkezpen ekitaldiko baldintza orokorrak hauek dira:

- Inguru kulturean ezagutzeko eta ezagutarazteko helburua
- Formatu txikia eta denbora mugatua
- Egingo diren ekintzetan eta beraien edukietan, aniztasuna.
- Helburu aldarrikatzailea

Hurrengo Topaketa martxoaren 7ra atzeratzea erabaki zen, lehen aurkezpen ekitaldia eta aste bat beranduago. Ekitaldia Altxerrin izango da Otsailaren 28an.

## III. EKIMEN KULTURALEN PROGRAMAZIOAN DAUDEN ARAZOAK

1. Ez dago instituzioekin bitartekaritzarik. Ostalaria BAKARRIK dago instituzio eta bizilagunen aurrean. Legalki ez du bermerik, ekimena inongo arazorik gabe aurrera eramango dela.
2. EZ DAGO KRITERIORIK. Kulturak babestu eta txalotu egiten du programazioa baina beste departamentu batzuek isunak jartzen dituzte nahiz eta baimenak izan.
3. SALBUESPENAK. Olatu Talkan adibidez, "barra libre" dago ekimenak egiteko, baita lizentzia zehatzik gabe.
4. EMAITZA. Lokalek, programatutako ekimen bakoitzeko "lepoa jokatzen dute", izan ere, eman dira kasuak non isunak jarri zaizkien Udalak berak antolatutako ekimenei.
5. EZTABAIDA. Arratsaldeko orduetara jotzera planteatzen da baina honek ez du arazoa konpontzen. Baimen indibidualak eskatzeko aukera planteatzen da, baina ez dira praktikoak.
6. PROPOSAMENAK:
  - ✚ Kultura "sozialki onartutako estandar batean" bilakatzea.
  - ✚ Bitartekaritza instituzional bat lortzea, bizilagun eta ostalarien artean.
  - ✚ Alderdi guztiekin koherentea, justua eta aplikagarria den marko legal bat izan.

## KA TOPAKETA #4 (2015.01.31)

Ekimena, Iñaki Arizmendiren obren aurkezpenarekin itxi zen, arte abstraktua eta figuratiboa nahasten dituztenak, errealismoa eta kritika soziala, berak egindako poemekin lagunduta, betiko “izenburu eta deskribapenetik” aldentuta.



Lanean hasi diren lan taldeek beraien aurrerapenak erakutsi dituzte:

1. Irudi korporatibo eta KA-ren logoaren lehenengo proposamena aurkeztu zen. 3 logoetatik, behin betikoa aukeratuko da bozka bidez. (Juanma, Iker II eta Aitorrek osatutako lan taldea).
2. KA-ren aurkezpena izango den Barne Ekimenaren garapenaren laburpena egin zen. (Hodei, Iker I, Iker II, Iñaki Arizmendi, Maider, Lisandro eta Lidek osatutako lan taldea).
3. Web-erako tresnak eta promozio teaserra garatuko duten lan taldeak laster bilduko dira.
4. Kide berrientzat, KA-ren filosofiaren eta orain arte landutako gaien laburpen bat egin zen.

Kide berrien aurkezpenak, bidea eman zion ondorengo gaiari: Europako Kultur Hiriburutzaren markoan ekimenak antolatzeke zailtasuna. Eztabaidaren zati handi bat gai honetara bideratu zen.

#### IV. LOGO ETA IRUDI KORPORATIBOA ETA TEASERRA

Aurkeztutako lehen proposamenean, irudi korporatibo eta behin betiko logora heltzeko eman beharreko aurreko pausoak zehaztu zitzaigun. Aurkeztutako logoak ez zituen oraingoaren alde txarrak, formatu ezberdinetan aurkezteko eta KA-ren filosofia ikusarazten zuen.

Letrekin jolastuz, bozgorailu bat sortzen da. Gainera A letra du nagusi, euskal A, KA-ren jatorria nabarmentzen duena (geografiko eta kulturala) eta helburutzat duen espresio artistikoaren zabalpena batez ere, publikoarengana, medioetara eta instituzioetara heltzeko “bozgorailu” bat behar duenarentzat.

Beste bi proposamenen zain, hiru proposamenen artean Facebooken bozketa bat egingo dela erabaki zen, behin hirurak ikusgai daudenean. Egokiena otsailaren 28aren aurretik egitea da, egun honetan KA-ren lehen aurkezpena egingo baita.

Teaserraz gain, KA-ren 2014ko Dossier edo Memoria bat egitea proposatzen da, kide bakoitzak urtean zehar egin dituen ekimenak barneratuko dituen. Hau, medio eta instituzioen aurrean aurkezpen dokumentu moduko bat izango litzateke, KA-ren "indarra" isladatuko duena zentzu horretan, "lobby" bezala.

## V. BARNE EKIMENA ETA KA-REN AURKEZPENA

Lan taldeak, formatu handiko aurkezpen bat proposatzen zuen, "jaialdi" formatukoa DOKAN, data zehatzik gabe, baina komenigarriena asteburuan egitea dela ondorioztatuz. Larunbatean programatzeak, ordutegi aldetik muga gutxiago izatea, eta festa giro gehiago sortzea dakar, aldiz, igandean, ordutegi mugatuago bat eta ez hain festa girokoa izango litzateke.

Programazioan ahalik eta disziplina gehien sartu nahi zen, espazio fisiko bat emanaz (stand) proiektu zehatzentzat, asoziazioentzat, etab. Formatu arin bat nahi zen, aurkezle batekin, eta 30 minutuak igaroko ez dituzten ekimenekin. Baita ere, lunch bat egitea proposatzen da eta arratsalde erdialdetik hasi eta gauerarte.

Eztabaidan, ekimena sinplifikatzea erabaki zen, praktikotasun eta arintasun gehiago izateko eta arrazoi teknikoengatik (antolakuntza eta korrinazio handiago bat beharko litzateke, jaialdi baten moduan), ekonomikoengatik (Dokak asteburuetan programatzen du eta lehen aurkezpenak ez du publikoaren etorrera bermatzen) eta psikologikoengatik (publikoa nekatzea, etab.). Aurkezpena leku eta formatu txikiago batean egitea planteatu zen (Altxerri, El Callejón...), arratsaldeko zortzietatik gauko hamarrak edo hamaiketara gehienez.

Jaialdi formatua zerbait oso handia egin nahi denerako utziz (aukera iritsiko balitz). Denon artean zerbait antolatzea proposatu zen, espresio artistiko ezberdinak formatu berdinean uztartuz eta eta hobekuntza konstante bat egitea, aurkezpenak analizatuz.

Ekimen honen edukia, Iñaki Arizmendik antolatuko du, musika eta obren proiektzioak fusionatuz, egunerokotasunarekin eta sorpresarekin jolasten duten obrak, kritika soziala barneratzeko.

Datozen egunetan, eduki gehiago aurreratuko da, baita beharrezko baliabideak eta KA-ko kideek eskaini dezakeguna.

Aurkezpen ekitaldiko baldintza orokorrak hauek dira:

- Inguru kulturean ezagutzeko eta ezagutarazteko helburua
- Formatu txikia eta denbora mugatua
- Egingo diren ekintzetan eta beraien edukietan, aniztasuna.
- Helburu aldarrikatzailea. Musika eta Artea (orokorrean) zuzenean, oztopoak izan arren kulturaren alde egiten duten lokalei babesa emanaz, zirkuitu bat sortzeko azken helburu bezala.

Kide berrien aurkezpenean, esaten digute Olatu Talka laster Donostia Kulturak kontrolatuko duela eta proposamenak egiteko azkeneko eguna Otsailaren 19a dela. Aukera berri bat irekitzen zaigu izan ere, Europatik diru-laguntzak iritsi dira Kultur Hiribirutzak dela eta, eta urtean zehar mota guztietako ekimenak antolatuko dira eta programazioa zabalduko da.

Horregatik, hurrengo topaketa Martxoaren 7ra atzeratzea erabaki da, aurkezpen ekitalditik aste betera. Aurkezpen hau, Altxerrin izango da Otsailaren 28an.

## I. EKIMEN KULTURALEN PROGRAMAZIOAN DAUDEN ARAZOAK

KA-n jende asko dago denbora bat daramana ostalariak defendatu, babestu edo behintzat kontuan hartuko dituen marko legal bat sortu nahian.

1. Ez dago instituzioekin bitartekaritarik. Ostalaria BAKARRIK dago instituzio eta bizilagunen aurrean. Legalki ez du bermerik, ekimena inongo arazorik gabe aurrera eramango dela. Batez ere, zuzeneko musika emanaldietan. Bizilagunekin hitz egiteak, eskaera garaiz egiteak, ordutegia mugatzeak... ez dute balio bizilagun BAT kexatzen bada eta polizia joaten bada. Gainera bizilagun hauek ez dira identifikatzen gutxienez insonorizazioari buruz hitz egiteko.
2. EZ DAGO KRITERIORIK. Kulturak babestu eta txalotu egiten du programazioa baina beste departamentu batzuek isunak jartzen dituzte nahiz eta baimenak izan. Bakoitzak bere lana egiten duela dio baina ez dago kriterio koherenterik.
3. SALBUESPENAK. Olatu Talkan adibidez, "barra libre" dago ekimenak egiteko, baita lizentzia zehatzik gabe.
4. EMAITZA. Lokalek, programatutako ekimen bakoitzeko "lepoa jokatzen dute", izan ere, eman dira kasuak non isunak jarri zaizkien Udalak berak antolatutako ekimenei.
5. EZTABAIDA. Arratsaldeko orduetara jotzera planteatzen da baina honek ez du arazoa konpontzen. Baimen indibidualak eskatzeko aukera planteatzen da, baina ez dira praktikoak.
6. PROPOSAMENAK:
  - ✚ Kultura "sozialki onartutako estandar batean" bilakatzea.
  - ✚ Bitartekaritza instituzional bat lortzea, bizilagun eta ostalarien artean.
  - ✚ Alderdi guztiekin koherentea, justua eta aplikagarria den marko legal bat izan



